

Udalak amaitu ditu Alderdi Ederreko haur-parkea erabat berritzeko lanak

Haurrentzako jolas-eremua eta segurtasun-zoladura berritu dira, 30.000 euroko inbertsioaren bidez.

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Atalaren bitartez, Alderdi Ederreko haur-parkea berritzeko eta hobetzeko lanak amaitu ditu. Parke hori hiriko jolas-eremu enblematiko eta erabilienetako bat da.

Azken egunetan, segurtasun-zoladura jarraitu berria jarri da jolasgune osoan, parkearen segurtasuna indartu eta haren irudia hobetzeko.

Jarduketaren ondorioz, parkeko elementu nagusiak erabat berritu dira. Lan hauek egin dira:

- Lehendik zauden joko anitzeko bi eremuak erabat desmuntatu dira, eta hondatutako zutoinak eta panelak kendu dira, ondoren horiek berritu eta muntatzeko.
- Malguki inklusibo berri bat eta labirinto motako joko bat instalatu dira.
- Zabuen egiturak berritu dira.
- Segurtasun-lurzoru jarraitu berri bat instalatu da haur-parkearen azalera osoan.

Jarduketa horretara bideratutako inbertsioa 30.000 euro inguru gehi BEZa da, eta haurren jolas-eremuak mantentzeko udal-kontratuaren bidez finantzatu da.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo García Villanuevak azpimarratu duenez “haur-parkeak ezinbesteko espazioak dira haurren aisialdirako, garapenerako eta bizikidetzarako. Jarduketa honen bidez, erabileraren eta denboraren igaroaren bidez higituta zeuden elementuak berritzeaz gain, Donostiako parke ospetsuenetako bateko segurtasuna, irisgarritasuna eta kalitatea ere hobetu ditugu”.

Era berean, honako hau adierazi du: “Udalean lanean jarraitzen dugu hiriko espazio publikoak ahalik eta baldintza onenetan izateko, bereziki familientzako eta haurrentzako guneak, instalazio horiek seguruak, modernoak eta egungo beharretara egokitutakoak direla bermatuz”.

Alderdi Eder berriz irekitzearekin, milaka haurrek hiriko haur-parke erabilienaz gozatzeko aukera izango dute berriro. Donostiako Erdialdeko leku pribilegiatua duenez, eta urte osoan familia askok erabiltzen dutenez, espazio hori udalerriko jolas-eremu enblematiko eta jendetsuenetako bat da.